

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ea

Aurkibidea

Udalerria: Ea

Sarrera



Busturialdeko eskualdearen ipar-ekialdean dago. Iparraldetik itsasoak mugatzen du; hegoaldetik, Ereñok; hego-ekialdetik Ispasterrek, eta mendebaldetik Ibarrangeluk. Bi auzo ditu: Natxitua eta Bedarona. Natxitua inguru malkartsuan dago eta Bedarona itsasoaren gainetik ikusten den muino batean. Angelutxu herrigunea, berriz, Ea eta Natxitua artean kokatutako baserri-multzo txiki bat da. Bertakoek herriari "Ie" deitzen diote.

Argazkia: Euskalduna

- **Biztanleak:** 897
- **Euskaldunak:** %90,19

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **18**
- Zintak: **28**
- Pasarteak: **233**
- Transkribatutakoak: **4**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **233**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Eako ahotsak
- IRALeren Bizkaiera Bilduma
- Lea Ibarreko Ahotsak

Hizlariak

Jose Santi Agirre Bermeosolo (1937)



1937. urtean jaio zen Etxeaundi deituriko etxean. Hiru neba-arrebatatik gazteena izan zen eta aitak bezala, bere bizitza erdia itsasoan igaro duela kontatu zigun. Sei urterekin Eako eskolan hasi eta hiru urtez bertan egon zen. Gero, Bilboko Eskolapios ikastetxera eraman zuten barneko ikasle moduan. Bilbon, batxillergo ikasketak eta Portugaleten Nautikako karrera burutu zituen eta 18 urte zituela, agregatu bezala itsasoratu zen. Munduko leku askotako bizipen ugari, eta urteak igaro ahala, marinelen artean gero eta maila altuagoa lortu, eta azkenean kapitaina izatera nola heldu zen ere kontatu zigun. 49 urterekin, lagun batek, Madrileko atoiotzi ontzi-enpresa bateko inspektorea izateko aukeraren berri eman zion eta, sei hilabeteko proba egin ostean, beste 20 urtez bertan geratu zen jubilatzen arte. Emaztea, berarekin elkarrizketan agertzen den [Ali Isasi](#) da eta umetatik ezagutzen zuten lkar. Ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten. Oso ahots ona du eta koruko gizon bakarra izan da. Herriko abesti, koplak, esaera zahar eta kontu ugari abestu eta kontatu zizkigun barre artean.

Maria Angeles Aldekogarai Alastra (1951)



Maria Angeles Aldekogarai Natxituako (Ea) Angelutxo auzoan jaio zen 1951an, *Atzeko* baserrian. Hiru anai-arreba dira eta bera da gazteena. Eskolara Natxituan ibili zen hamabost urtera arte eta ondoren Ean joskintza ikasi bazuen ere, hogeitau urterekin fabrika batean lanean hasi zen, Ispasterren. Erromeria batean Gizaburuagako nobioa ezagutu eta bertara ezkondu zen, Laxier auzoko *Akuiola* baserrira. 80. hamarkadaren amaieran, baserriko oilotegi zaharra zaharberritu eta Euskal Herriko lehenetariko nekazal-turismoa zabaldu zuten, oraindik ere eta 37 urte eta gero martxan dabilena. Maria Angeles, Gizaburuaga alkatea izan zen hogeitau urtez, 1991tik 2001. urtera arte eta bere 4 legegaldietan, hainbat etxebizitza berri eraiki ziren herrian.

Fernando Alzola Plaza (1937)

1937. urtean jaio zen Bedarona auzoko Urtza baserrian. Aita bertan baserrian jaiotakoa zuen eta ama Aulestiko Oñiz baserrikoa. Gaztaro guztia aitite eta amamaren baserria zen Olabarrin igaro zuen. Hiru anaien artean zaharena zen. Ama Lekeitiora joaten zen egunero etxeke esnea saltzera eta aita Ameriketara joandako artzaina izan zen. Sei urtetatik 14 urtera arte Bedaronako eskolara joan zen eta bitartean, eliz-mutil lanak egiten zituen bertako abadeari lagunduz. 12 urte zituela, Eako fabrikara lixiba eramaten zuen kamioian 18 urte izan zituen arte. 21 urterekin Bilbon egin zuen soldadutza eta amaitu zuenean, itsasoarekiko zuen afizioagatik-edo, 25 urterekin, beste bi anaiekin batera barku batean itsasoratu zen. Kanpaina amaitu eta Bedaronara bueltatu zenean, kamioia erosi eta gauzak alde batetik bestera garraiatzen ibili zen enpresa batetik bestera. Gerora autonomoa egin zen 45 urterekin istripu garrantzitsua izan zuen arte. Erretiratu aurretik, mandatarari bezala ibili zela kontatu zigun.



Rosario Basterretxea Bermeosolo (1929-2019)

1929. urtean jaio zen Natxituko Angelutxu auzoko Zeletabekoa baserrian. Rosario Zeletabekoan bizi izandako familia bereko bost belaunaldiko kidea da. 15 neba-arrebatatik gazteenetarikoa izan da. Urte gutxi eman zituen eskolan: zazpi urterekin Gernikara joan zen lehengusinarenean etxera bizitzera, amak ezin zituelako seme-alaba guztiak mantendu eta 27 urte izan zituen arte ez zen berriro etxera itzuli. Baserrian esne-behiak, txahalak, txerriak... eduki zituzten. Amak horien distribuzio eta salmenta lanetan aritzen zen. Aita, aldiz, Eako "kamineroa" zen, oso pertsona ezaguna herrian. Eibarren egon zen neskame bezala lanean koinatarekin eta bere bitartez, senarra ezagutu zuen. Bi urte elkar ezagutzen egon ostean, 27 urterekin ezkondu, eta senarra eta bera Angelutxura etorri ziren bizitzen.



Juan Martin Bermeosolo Gabiola *Gaztelu* (1925-2023)

Ereñoko Gaztelu baserrian jaio zen, bost anai-arrebatan azken-aurrekoa. Aita Eakoa zuen eta ama Aulestikoa, baina Ereñora ezkondu ziren, ama gaztetatik bertan bizi zen eta. Gerraostean Bilboko salesiarretan egin zituen bi urte, baina ez ei zuen eskola askorik ikasi. Handik etorrita, Gernikan egin zituen beste bi urte arotzeria ikasten. Urtebetez Sigma josteko makinen lantegian lan egin ostean, soldadu joan beharra izan zuen Burgosera. Handik etorri zenean, eraikuntzan hasi zen lanean, bere kontura, izan ere, soldadutzan ikasi baitzuen zertxobait lanbidea. Natxitura ezkondu zen 1951n, eta lau seme-alaba izan zituen.



Hizlari ezezaguna EAA-029

Etxebarriko karobia



Lehenago urtero-urtero eta baserri askotan egiten zen karea. Kareak hainbeste erabilera zituen: letxadea egiteko, kortak desinfektatzeko, soloan ongarri lez, arrautzak kontserbatzeko, fruta-arboletan... Gure baserrietako karobietan etxerako egiten zen, gehienbat; baina baten batzuk kopuru handietan eginez gero, saltzeko ere egiten zuten. Modu horretan, orain 90 urte inguru arte funtzionatu zuen Etxebarriko karobiak. Gerora, etxeetan bakoitzak berea egin beharrean erosten hasi ziren. Nor izan garen eta zelan bizi izan garen ahaztea ez da ona eta horregatik 2012ko uztailaren 28an, Bedarun karea egin zen auzolanean. Karobiari su eman ostean, hoztuten utzi eta abuztuaren 5ean karea atera zen. Grabazio honetan prozesu horren berri eman nahi izan dugu pausuz pausu.

Pilar Garate Intxausti (1932)



1932. urtean jaio zen Natxituko Aldebazter auzoko Ezkoiz baserrian. 12 urtera arte bizi izan ziren han Erkiz baserrira joan arte. Ama Ezkoizekoa zuen eta aita Ibarrangelun jaiotako matarifea. 2 ahizpa eta neba gazteago bat izan zituen. 6 urtetik 14 urtera Natxituko eskolara joan eta beste gauza askoren artean, bertan ikasi zuen erdaraz berba egiten. Natxituko lehenengo neska txoferra izan zen eta etxeko esnea kotxean banatzen zuen. Bi aldiz ezkondu zen semea izan eta gazterik alargundu baitzen. Berrito ezkondu eta Ermuara joan ziren bizitzen. Ermuan urte asko egin dituen arren Natxituko euskara mantendu du.

Andresa Garate Mentxaka (1936)



1936an, gerra sasoian, Natxituko Olagorta auzoko Lauaxeta baserrian jaio eta bertan hazi eta bizi izandakoa. Baserria familiarena izan zen eta ezkondu zenean, osaba bati erosi zion. Ama Ereñokoa zuen eta aita Natxituko Aldebazter auzoko Gatagane baserrikoa. 4 neba-arrebatatik bera da gazteena. Gaztaro polita izan zuen arren, neba-arrebak ezkondu eta etxetik joan zirenean, baserrian lan asko egitea egokitu zitzaion. Familia aurrera eramateko, gurasoek soloko produktuak (garia, artoa...) eta behi-esnea saltzen zituzten. 11 urte zituelarik, aita hil eta amari lagundu behar izan zion baserriko lan guztietan. 16 urterekin, bere umetako lagunarekin hasi zuen harremana, eta bat Australian eta bestea Natxitun egon arren, kartaz mantendu zuten kontaktua. 23 urterekin, berarekin ezkondu eta 3 seme-alaba izan zituzten.

EAA-028 Hizlari ezezaguna

Julian Ipiña Llanos *Ipiña* (1929)



1929.urtean jaio zen Zornotzako Boroa auzoko Arriagazarra "Arrixazarra" baserrian. Aita bertakoa zuen eta Bilboko portuan lan egiten zuen. Behin, etxerako bidean zetorrela, Guardia Zibilak geratu eta hil egin zuten berak 7 urte zituela. Ama ere bertakoa zuen, atzerago zegoen Sagastia "Sagastitxu" baserrikoa. Hau Bilbon jaio zen, baina bere bi ahizpekin batera bertako familia batean hazitakoak. 11 urterekin morroi bezala jardun zuen ondoko baserri batean eta hortik aurrera, Busturian eta Gipuzkoako herri desberdinetatik ibili izan zen morroi bezala. 21 urterekin etxera bueltatu zen soldadutza egiteko. Ikasketak Ansoainen egin eta Beran soldadu bezala zerbitzatzea egokitu zitzaion. 27 urterekin ezkondu eta emaztearen baserrira joan zen bizitzen. 1957an Eako papeleran lanean hasi eta 10 urte inguru egin zituen bertan. Zornotzakoa den arren urte asko daramatza Ean eta jadanik, hemengo hizkera daukala esan daiteke.

Ali Isasi Olaeta (1942)



1942. urtean jaio zen Angelutxu auzoko Urtia baserrian. Ama bertakoa zen eta aita Natxituko Santigaldiz auzoko Arteta baserrikoa. Bost urte zituela, Santigaldizera joan zen gurasoekin bizitzera eta Natxituko eskolara joaten zen goizero. Alaba bakarra izan zen eta aita itsasontziko kapitaina zenez eta hainbeste denbora etxetik kanpo ematen zuenez, amari asko laguntzen ziola kontatu zigun. 13 urtetik 19 urte izan zituen arte, Durangoko eskola batera bidali zuten barneko ikasle bezala. Umetatik ezaguna zuen Eako [Jose Santi Agirre](#)rekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten. Ean bizi ziren, baina senarrak, aitak bezala, itsasoan hilabete asko igarotzen zituenez, etxean ez zuen laguntza handirik izan umeak jagon eta eskolara eramateko eta horregaitik, Gernika-Lumorara joan ziren. Bertan, 18 urte luzez egon zen, umeak eskola eta ikasketak amaitu zituzten arte. Senarra ere elkarrizketan agertzen da.

Baldomera Kortabitarte Atxabal (1925)



1925. urtean jaio zen Ispasterko Solarte auzoko Txumetegi baserrian. Baina 1935. urtean, 10 urte gaz, Bedaronako (Ea) Olabarri baserrira etorri ziren eta ordudunik bertan bizi izan zen. Gurasoak Ispasterrekoak zituen eta sei neba-arrebak osatu zuten familia. Ia mende oso bateko historiaren lekuko, bizi luze eta sakon horretan bizitako hainbat kontu kontatu zizkigun: Errepublikara garaiko eskolan bizitakoak zein gerra hasieran eta Kalamuako frontea.

Guadalupe Mendibe Goikoetxea Ama Guada (1925-2015)



1925eko irailaren 4an jaio zen Ean, Bedaru auzoko Olabarri baserrian, baina 6 urte zituela, familiarekin Eara joan zen bizitzera. Eskola asko gustatzen zitzaion arren, 10 urterekin goizetan eskolara eta arratsaldetan udatiar aberats batzuen seme-alabak jagoten ibili behar izan zuen. Bost neba-arrebatatik bera izan zen alaba bakarra. Aita gaixorik egon zen urte askoan Guadak etxeko martxa zeraman bitartean, amak, osterak, etxetik kanpo lan egin behar izan zuen etxeetara ura eramane eta etxeko produktuak Lekeition saltzen. Eako marinel batekin ezkondu zen 26 urte zituela eta zazpi seme-alaba izan zituen. Familia guztia batu eta Bilbora joan zen bizitzera 45 urterekin eta handik hamar urtera, seme-alabak lan-munduan ondo kokatuak zeudela, Eara bueltatu zen.

Garbiñe Siloniz Barrenkua (1935)



1935ean jaio zen Eako etxe batean, baina bizi guztia Angelutxu auzoko Erdiko baserrian bizi izan da. Ama Ibarruriko etxekoandrea eta Aita Angelutxu auzoko Urtia baserriko gizasemea izan zen. Aita urte asko Ameriketatik ibili ondoren, Euskal Herrira bueltatu zenean, Firestone enpresako langilea izan zen. Zazpi neba-arrebatatik hirugarrena izan zen bera. Guztiek lan asko egin behar izan zuten etxetik kanpo aitaren gaixotasuna dela-eta. 15 urterekin hasi eta ezkondu zen arte ume jagole, neskame, interina...lanetan ibili zen. 33 urterekin Berritxuko Lorenzo Eizagirrearekin ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituzten.

Maria Antonia Ureta Jaio (1924)



1924. urteko San Antonio egunean jaio zen Goiko bidea kalearen eta San Juan eliza aurrean dagoen etxean. 10 neba-arrebatatik bera eta bere bikia dira zortzigarrena eta bederatzigarrenak. Ama Ibarrangelukoa zen eta gazte hil zenez ez zuen ezagutu. Aita Zeanurikoa bazen ere, oso pertsona ezaguna bihurtu zen herriko "kotxeroa" izateagatik. Sei urterekin Eako eskolan sartu eta 14 urterekin irten zen. Erdaraz ikasi behar izan zuela-eta, oso txarto pasarazi zioten eskolan. Gaztetan ebaketa eta jantzigintza ikasketak egitera joan zen Bilbora eta Eako jostunetarikoa bat izan zen urte askotan. 22-23 urterekin Eako baserritar batekin ezkondu eta gizona bizi zen Iruta baserrira joan zen bizitzen. Honek paper-lantegian egiten zuen lan eta zarratu zutenean nabigatzera joan zen. Bere [ahizpa bikia](#)rekin batera egin genion elkarrizketa. Argazkian ezkerreko aldean agertzen dena da.

Maria Teresa Ureta Jaio (1924)



1924. urteko San Antonio egunean jaio zen Goiko bidea kalean eta San Juan eliza aurrean dagoen etxean eta hori izan da beti bere bizilekua. 10 neba-arrebatatik bera eta bere bikia izan ziren azken aurrekoak. Ama Ibarrangelukoa zen eta gazte hil zenez ez zuen ezagutu. Aita Zeanurikoa bazen ere, oso pertsona ezaguna bihurtu zen herriko "kotxeroa" izateagatik. 6 urterekin Eako eskolan sartu eta 14 urterekin irten zen. Erdaraz ikasi behar izan zuela-eta, oso txarto pasarazi zioten eskolan. Neskame lanetan ibili izan da betidanik eta horri esker taberna eta etxe propioa eskuratu ahal izan zituen. 22 urterekin Gernikako iturgin batekin ezkondu zen eta alaba bat izan zuen. Bere [ahizpa bikia](#)rekin egin genion elkarrizketa.

Argazkian eskumako aldean dagoena da.

Marisol Uriarte Agirre (1942)

Mendipeko Etxebarrin, Natxituko etxerik zaharrenetarikoan jaio zen 1942ko ekainean. Etxearen izena hori zen arren, aitaren gurasoek etxea erosi eta bertan taberna zabaltzea erabaki zutenean, denek Tabernazarra bezala ezagutu izan dute. Aita bertakoa eta ama Aldebazter auzoko Natxitupe baserrian jaiotakoa. Aita nabigantea izan zen eta gurasoak erretiroa hartu zutenean hartu zuen tabernaren ardura emaztearekin batera. 6 urterekin hasi zen Natxituko eskolan eta 15 urterekin amaitu zuen. 15 urterekin eskolaritate kartila eman zioten eta berak ikasten jarraitu nahi bazuen ere, maistrak ez zion utzi. 12 urterekin tabernako mostradore atzean ibiltzen zen jadanik eta lan gogorra zen arren, oso gustora ibili zen. Etxeko negozioa ez zen soilik taberna bat; estankoa, ultramarinosa eta telefonoa zeuzkan, eta horrez gain baita alokatzeko 5 logela ere. 4 neba-arrebatatik bera eta gazteena bizi zirenez etxean, aita hil zenean etxeko ardura hartu behar izan zuen. Senarra kapitana zen eta tabernan bertan ezagutu zuen. 26 urterekin ezkondu eta 2 seme-alaba izan zituzten.



Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Aita eta amaren arteko eginkizunen aldaketa

- **Hizlaria(k):** Mendibe Goikoetxea, Guadalupe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere - Gonzalo, Iñaki
- **Erref:** EAA-002/006
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:02:52. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Aita gaixorik zegoenez (asma), ama astoaren laguntzarekin, Lekeitiora joaten zen etxeko produktuak (arrautzak, untxiak..) saltzera eta horren ordeztu, olio, azukrea... etxean behar zirenak ekartzen zituen. Honez gain, amak, pegar baten laguntzarekin, edateko ura banatzen zuen etxeetatik eta horren truke, etxerako elikagaiak eta produktuak ematen zizkioten. Bien bitartean, aitak umeak eskolara joateko prestatu, jantzi... eta etxea atondu egiten zuen.

Transkripzioa

Basarridixen, ba, aitte makalik, ze asmatiko zan. Ta amak, ba, eitten eban Lekittora osterie saltzen etxeko biberak. Eukitten eban madarixek eta.

Bedarutik, ba, orduen astukin juten zien. Astuekin jua ta saltzen eban plazakue ta bueltan ekarten eban, ba, etxien biher dan gauzie. Nire ama moduen, nik neurie diñot, baiña auzoko guztidxe batzen zien. Ta bueltan ekarten eben, ba, olixue, azukrie... etxien biher dan gauzie. Ta eurek salduten eben, ba, arrautzak, konejuek eta halako biharrak. Ta gero, ba, gure ama len (Ean)... aittek eitten [doskun] kargu gehidxau. Aittek eskolarako umiek listau ta, eskolarako, ba... Ama biharrien ibiltten zan. Urek ekarten ebezan etxietara. Kantarue, antxiñako pedar horrek. Neuk be ekarten neban berak ezin dabenien; laguntzen notson. Baiña... Klaro, hamen urik ez zan egon edatekorik. Hantxe plazan egon da —ta pena haundidxe emon dost entera nitzenien, ta ikusi ein dot— itturri bet politte, han Txangurruen atzien ta kendu ein dabe. Ta haixe bakarrik zan hemen edateko ure. Bai. Ta handixik ure eruten eban amak, ba, etxietara, edatekue. Ostantzien erreka ure egoten zan hamen. Ta umiek eskolara ta ama biharrien ta aittek eitten eban etxeko bueltie. Ta... Medikuz ta beti tratamentuen.

1.2. Eskolan sua pizten zuten berotzeko

- **Hizlaria(k)**: Siloniz Barrenkua, Garbiñe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Andere
- **Erref**: EAA-024/014
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:24:04. **Bukatu**: 00:27:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Natxituko eskolan ibili zen. Hogeita hamazortzi neska-mutil ziren gelan. Neguan sua pizten zuten gelan berotzeko eta dena kez betetzen zen. Neguan hotz handia pasatzen zuten, frakarik ez baitzuten erabiltzen.

Transkripzioa

- Ni umie nazela etorri nitzen. Beti Natxitture. Sei urteaz hasi nitzen Natxittun. Natxittun gu danok.

- Natxittuko eskolan?

- Gu Natxitture jun gara beti, neba-arrebok, danok. Señorita Aurora maistrie. Haixe maistra. Ta ondo, primeran.

-Zelakue zan lehengo eskolie ba?

-Badakizu zemat lagun egoten giñen? Mutil eta neska? Hogeita hamazortzi eta... egoten giñen.

-Eta zelakue zan? Ze akordu dekozu eskolakue?

-Eskolakue nik, eskolakue dekot... ona dekot. Neu ez nitzen lehenengue, ni tarteko bat, besterik ez. Hotza pasaten gendula haundidxe, eta eitten zanien biztu estufie, ataraten zan keiaz, atzera dana ein biher e... [...] Eta gure tiok Urtiatik, Elenan aittittek, eruten eban burdidxen egurre, eta hutsittu baiño ez eban eitten...hasten zan maistrie edo... zaharrena dana edo, hori (sue) eitten, danak bentanak eraindte, egon ezin, danak dardadaka. "Aquello tengo lo que más". Eta geure bidie, eukitxen gendune, tretxue, hotza, hotzak!, orduen ez zan prakarik be eruten eta...

- Zelan juten ziñien ba, hametik hara?

- Oiñez jun eta etorri eta udan beruek erreten baiña neguen pasaten genduzen hotzak, hori danak esango dotzue. Horretatik ondo baiña... ta baitte hanketatik be, baiña zerek barik, praka barik, ostantzien e honarteko edo holan be bai, zerak, kaltzerdixek onak eta... hori bai, hori bai, ondo botaten gaittuen. Eneei, gure ama horretan itzela zan, biher dan /bidan/ modokue zan ha andrie. "Limpia y..." Itzela ixen zan ama.

2. Aisia

2.1. Karameluak dantza egitearen truke

- **Hizlaria(k)**: Garate Mentxaka, Andresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranburu Agirre, Judith - Gonzalez, Andere
- **Erref**: EAA-003/022
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:22:22. **Bukatu**: 00:24:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Domeka guztietan gramola jartzen zuten Natxituako plazan dantzan egiteko. Inguruetako jende asko batzen zen bertan. Mutilek karameluak ematen zizkieten eurekin dantza egiten zutenean. Jaietan barkilloduna etortzen zen Natxituara eta haretzek oparitzen zizkieten mutilek. Komedianteak ere etortzen ziren jaietan.

Transkripzioa

- Bueno... Hasten zan musiki Natxittun... gramolie... hi, geratu be ez!
- Natxittun plazan gramolie domeka guztitan eoten zan?
- Domeka guztixetan eoten zan. Ta jentia asko etortzen zan Natxitture kanpotik.
- Ingurutik?
- Ingurutatik.
- Baiña mutillik jantzan eitteko bazegon?
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai. Karameluak [eskatzen geuntezan]. Ta poltsillu karameloz beterik beti.
- Mutilleri karameluk eskatzen?
- Klaro! "Jantzan eitti gure bozue, [ipiñi] karameluk". Tragorik eta halakorik ez, baiña karameluk bai.
- A bai, e?
- Karameluk. Karameluk eta antxiñe ibiltten zan e... jaixetan e... ha... erroskak ez, baiña... zer zin harek? Holan "rrrr" emon e...
- A! barkilluek.
- Barkilluk. Ta barkilluk, ostontzin, barkilluk. Jaixek bazin, barkilluk.
- Barkilleruak [...].
- "Ra" emon ta barkilluk ataten ebazena.
- Ta etorten zan Natxittuko plazara?
- Bai, bai, bai, bai. Natxittun eoten zan.
- A, beittu.
- Ya, bai, bai, bai, bai. Natxittun. Ta baite eoten zin Natxittun e... etorten zin lehen e... honek e... zer di horrek?
- [...]?
- Ez, e...
- Komediantik.
- Komediantik. Komediantik be bai etorten zin. Ta harek be musikie ipintten

ebenin, dale guk! Es que yo he sido... Ixan naz alegria alderdi batetik. Me ha gustau ya... kantie ta jantzie... asko gustau ixan [jat]. Txarto edo ondo, baiña ein.

- Entzun, Andresa, ta zure gixonak jakin dau jantzan?

- Bueno, bueno ba... Gixon difuntuk... tire. Tire. Baiña honek e... Askorik ez.

- Disfrutateko beste bai.

- Bai, bai, bai, bai, bai. Ta hau e... b... tire. Tire.

3. Familia eta harremanak

3.1. Amamak jo zuenekoa

- **Hizlaria(k)**: Siloniz Barrenkua, Garbiñe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Andere
- **Erref**: EAA-024/005
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:08:08. **Bukatu**: 00:10:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Amamak jo zuenekoa kontatzen du, hark etortzeko deitu eta kasurik ez egitearren. Amamak urtetan gogoan izan zuen eta pena zeukan jo zuelako.

Transkripzioa

- Amuma zorrotza bai, baia ama ona.

- Ama ona.

- Baia amuma zuekaz zorrotzaue zan? Ez...

- Ez! Baten jo nauen amumak eta, beittu, neuk euki kulpie.

- Ze ein zendun?

-Ariñeketan eskapau txopo azpittik eta hori, berak ez deitzen ezer errestarik eñ. Eta "etorri ume ba, etorri ba" ta "ni ez noie ze jo ingo dostezu", eta begittuten naben eta idxe neure ondun bera, martxan!. Ordun urtik nik be ba... lau edo bost. Etxera etorri nitzen "ume, untxe jo ein biher zaittut /bizaitxut/ ba, sekule ez zaittut eñ baiña". "Menuda paliza". Hori ez jat niri ahaztu be eitten sekule. Gehidxau ez. Eta gero beti esaten dosten, Burzeñan bizi zin gero harek, ze gure...tia Birjina ezeutu zendun?, tia Birjinian ama ha be, eta tia ta Burzeñan bizitzen. Eurekin erun eban /eruban/ tiak Burzeñara, eta etorten jakun ba frutiaz eta beti geuzakin amuma bertora. Hamintxe egoten zan. Eta akordun eukitxen dot "ume, esan biher dotsut /bitzut / ba", beti esaten dosten, "zelan jo zaittuten", bera ha peniaz.

- Berak be eukiko eban gordeta hori penie edo...

- Bai, beti esaten dosten. Gure ama ez zan joten eta holan, ez zan. Harek esan geuzie. "Zelan jo ete zaittun ba, umia?" "ba txarto ein nabelako" . Eskapau, badakixu, ha berotute datorren atzetik, joteko. Beste preguntarik?

- Eta amak ze eitten eban, baserridxen lan, edo kanpuen?

- Ez, gure amak etxien beti, bera famelixe hazten eta kanpuen biharra, baserridxen, edozetan, tokaten zana, dana eitten eban harek, beti.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Goizean eskolara eta arratsaldean lanera (EAA-002/007)

Etxe Haundira etorri ziren familia bateko 4 seme-alabak jagoten hasi zen 10 urte zituela. Goizetan eskolara eta arratsaldeetan umeak zaintzen zituen. Batzuetan, amak laguntza behar zuenean, etxeetatik edateko ura banatzen zuen.

2. Lixiba egiteko xaboa eta eukalipto orriak (EAA-002/009)

Garbitasunerako erreka ura erabiltzen zuten, baina edateko eta sukaldatzeko iturrikoa. Lixiba egiteko, arropa xaboitu egiten zuten eta eguzkitan jarri. Eukalipto orriak botatzen zituzten arropak usain gozoa eduki zezan.

3. Kantina buruan zutela ekartzen zuten ura etxera (EAA-002/011)

Ura etxera ekartzeko, kantina ("kantarue") jartzen zuten buruan. Kantina jartzeko, sorkia jarri ohi zuten azpian; amak bestela burusoil geratuko zirela esaten zien eta. Eskolara arratsaldeetan joan behar izaten zuen, etxeko beharrak egin ostean.

4. Umeak zaintzera Bilbora (EAA-002/014)

Hamaika urte zituela, Legina familiaren Bilboko etxera joan zen umeak zaintzera.

5. Leginatarren etxean neskame (EAA-002/016)

Neguak Bilbon ematen zituen leginatarren etxean eta udan herrira etortzen ziren. Leginatarren etxean alfonbrak garbitzen ikasi zuen eta puntua egiten. Hiru urtean egon zen bertan.

6. Gernika erre zuten egunaz (EAA-002/020)

Gerraostean gosea pasatu zuten. Ogi beltza ematen zieten jateko. Gernika erre zuten egunean, zeozer gertatzen ari zela jakin zuten, hegazkinak joan-etorrian ikusten zituzten eta. Lehenengo Natxitua erretzen ari zela pentsatu zuten. Lapatza bidean zegoen zulo moduko batean ezkutatu ziren.

7. Gerra sasoian errazionamendua (EAA-002/021)

Gerra sasoian, errazionamendua jarri zuten eta gose handia pasatu zuten. Lantzean behin, soldaduek eskolatik irteten ziren umeei ogi zatiren bat edo arroz paketeren bat ematen zieten. Etxean esnea ematen zuen behi bat eduki ziren, eta harekin konpondu ziren.

8. Amak estraperloan hartzen zituen jatekoak (EAA-002/022)

Gerra sasoian, ama egurretan joaten zen basora. Arginera joan nahi izaten zuen, bertakoek irina edo arroza ematen zioten eta. Aitak ez zuen nahi izaten ama bertara joan zedin, berak estraperloa kontrolatzen egiten zuen behar eta. Errazionamenduan ematen zieten oso gutxi izaten zen.

9. Jaiak eta jokoak (EAA-002/025)

Bedarun San Inazioko jaiak ospatzen zituzten. Jokoak antolatzen zituen Guadaluperen osabak posturak egiteko; esaterako, astoari zenbat emakumek tiratu. San Inazio eta San Bartolome ere ospatzen zituzten.

10. Musika eta dantza (EAA-002/026)

Bedarun soinujolea egon zen: Imanol. Erromerietan, txistua eta danbolina ere edukitzen zituzten. Soltuan egiten zuten dantza, bestela bekatua zen eta. Behin, erreal bat irabazi zuen Guadalupek Debako jaietan jota dantza egitearren. Ean dantzataldea egon zen.

11. San Inazio eta "Sagradun egune" (EAA-002/029)

San Inaziotan, mezara joaten ziren lehenengo eta gero bertako soinujolearekin egiten zuten erromeria. Danbolina Eako Sabin Juaristik jotzen zuen. Bekalen "Sagradun egune" ospatzen zuten: habeekin egindako arkuak altxatzen zuten, erramekin eta ortuariekin josia. Sagradua ere ateratzen zuten eta kaleko espaloiak loredun poteez betetzen zuten.

12. San Juan: sua eta erromeria (EAA-002/030)

Galok gramola jartzen zuen San Juanetan. Dantza egitearren kobratu egiten zuen. Bezperan sua egiten zuten Lameran. Egun batzuk arinago, eskola-umeek sasiak pilatzen zituzten San Juan bezperan sua egiteko. Gazteek suaren gainetik salto egiten zuten.

13. Gabonetako ohitura: ogi zatia gorde (EAA-002/031)

Gabonetan, mantela jartzen zuten eta ogi biribila ekartzen zuten. Ogiari gurutze bat egiten zioten eta zati bat moztu. Zati hori mantelaren azpian sartzen zuten eta urtebetean edukita ere ez zen galtzen. Urtebetegarrenean, zatitxo bana jaten zuen bakoitzak, ez mututzeko.

14. Mutilak 'Abendue' kantatzen (EAA-002/032)

Mutilek 'Abendue' kantatzen zuten bederatzi egunetan. Orain neskek ere kantatzen dute, baina lehen ez. Gauetan kantatzen dute eta goizeko seietan: "bederatzi gau hotzetan, gatoz zuekana, emoten dozun limosnatxue, hartungogu poltsetan".

15. Umeak etxean jaio (EAA-002/034)

Seme-alabak etxean eduki zituen, azken hirurak izan ezik. Don Jose Moreno medikua eta Eufemia emagina joaten ziren erditzeetara. Medikuari ordaindu egin behar izaten zitzaion, baina emaginari oilaskoren bat ematen zioten. Galok taxia edukitzen zuen eta hark eramaten zituen andreak klinikara umea egitera.

16. Euskarazko izenak jartzeko debekua (EAA-002/037)

Francoren sasoian ez zuten uzten euskaraz berba egiten. Don Cecilio abadeak ez zien utzi semeari Andoni izena jartzen eta Antonio jarri behar izan zioten.

17. Dendak, harategia eta arrandegia (EAA-002/039)

Kantoian denda egon zen. Denetik saltzen zuten orduko dendetan. Lehen arrandegia eta harategia ere egon ziren Ean. Tabernak ere ugari zeuden.

18. Urteberriko kanta (EAA-002/042)

Urteberriko kanta abesten du: "Urtebarri on bat..."

19. "Umien zentzune, etxien entzune" (EAA-002/044)

"Umien zentzune, etxien entzune" esaera zaharra.

20. Baserriko beharrak bere gain (EAA-003/009)

Amak baserriko lanak aurrera eramaten zituen. Andresak 16 urte zituela, etxetik joan zirenean neba-arrebak eta berari egokitu zitzaion baserriko lan guztiaren ardura.

21. Gazte sasoi ona (EAA-003/010)

14 urtera arte joan zen eskolara. Gazte denborako oroitzapen onak ditu. Goizean 6retan esnatu eta esnea eramaten zuen Elantxobera. Gero, hamaiketako Merrun egiten zuen eta ostean, bordatzen ikasten joaten zen. Arratsaldean aldiz, josten ikasten zuen.

22. Etxez-etxe esnea saltzen (EAA-003/011)

16 urte zituela, amari esnea saltzen laguntzen hasi zen. Eskuz erazten zituzten behiak eta kantinean eramaten zuten esnea Elantxobera arte. 6-7 behi izaten zituzten baserrian.

23. Señorita Aurora irakasle zuzena (EAA-003/013)

Señorita Aurora oso irakasle zuzena zen. Txarto portatuz gero edo euskaraz eginez gero zigortu egiten zituen. Ez du ulertzen zergatik ez zieten euskaraz hitz egiten uzten.

24. Eskolan liburu bi (EAA-003/015)

Eskolan gai guztiak ikasten zituzten, euskara izan ezik. Liburu bi eduki zituzten eurek: bata "Historia sagrada" eta bestea bestelako ikasgaiarentzat. Goiz eta arratsalde joaten ziren eskolara. Neska eta mutil batera ibiltzen ziren eskolan.

25. Jaunartzeak etxean ospatzen ziren (EAA-003/017)

Lehenengo Jaunartzea egiten zutenean, etxean egiten zuten ospakizun bazkaria. Abadea ere gonbidatzen zuten. Pazkotan egiten zuten komunioa.

26. Ezkontza eguneko jantziak (EAA-003/019)

Natxitian bertan egin zuten ezkontzako bazkaria. Jantzi beltza eraman zuen Andresak, modista batek egina, eta mantelina buruan.

27. Gidabaimena (EAA-003/020)

Orain berrogeita bost bat urte, baserrirako bidea egiten ibili zela kotxe istripua eduki zuen Andresak. Orduan gidabaimen barik ibiltzen zen. Istripua eta gero, jarraian atera zuen gidabaimena.

28. Gaztetako behar gogorak (EAA-003/021)

Denetariko beharrak egin behar izan ditu Andresak; esaterako, osabari basoan azpigarriak mozten lagundu. Behar gogorak izaten ziren ordukoak. Hala ere, ondo pasatzen ere jakiten zuten: erromerietan. Inguruko herrietara joaten ziren, urrunen Lekeitiora eta Ispasterrera.

29. Inguruko gazteak Natxituako gramolara (EAA-003/024)

Mutilei kobratu egiten zieten dantza egitearren. Ean ere egoten zen gramola, baina inguruko jende gehiena Natxituara joaten zen. Balsa, jota eta tangoa moduak dantzatzen zituzten.

30. Gari ereitea, batzea eta jotzea (EAA-003/032)

Garia San Andres inguruan ereiten zuten: haziak bota eta burdina-arean pasatu ganaduekin. Maiatzean oloa atera behar izaten zen. Gero, garia mozten zuten; hasieran igitaiarekin eta gero makinarekin. Metak egiten zituzten gariarekin. Hilabetean edo sikatzen utzi behar izaten ziren eta gero jo.

31. Estraperloa eramaten harrapatu (EAA-003/034)

Gerra sasoiari, garia entregatu egin behar izaten zuten. Estraperlo asko zegoen orduan. Behin, guardia zibilek neba harrapatu zuten estraperloa eramaten. Aitak kuartelean eman behar izan zituen egun batzuk eta etxea arakatu zieten. Handik eta gutxira hil zen aita.

32. Ogia egiten (EAA-003/040)

Ez zuten goserik pasatu gerra ostean. Ogia etxeko labean egiten zuten eta ortuko jeneroak batzen zituzten. Ogia astean behin egiten zuten. Azpiran ("artesan") irina eta altxagarria ("lebadurie") urarekin nahasten zituzten. Gero, estalita uzten zute orean, altxatu arte, eta labera sartzen zuten.

33. Familia sarri batzen zen (EAA-003/042)

Txerri bodarako familia batzen zen. Gainera, domeka gauetan Elantxobeko familia etortzen zitzaion afaltzera. Orain baino gehiago batzen ziren lehen.

34. Txerria hiltzen (EAA-003/044)

Txerria hiltzeko osaba etortzen zitzaian, matarifea. Gantxoa sartu eta txerria odolustu egiten zuten. Gero erre egin behar izaten zen, garbitu eta eskegita utzi ilutzean txikitzeko. Gero, txorizoak eta odolosteak egiten zituzten. Txerria hil ostean berakatz-zopa eta gibela jaten zuten.

35. Txerrikiak gatzetan gorde (EAA-003/045)

Txerrikiak gatzetan gordetzen zituzten. Jateko, bertatik atera eta gatzak kentzen zieten. Hala ere, gazi geratzen ziren gehienetan. Txerria hiltzen zuten egunean, txerri-okela eta mortzilak prestatzen zituzten afaltzeko. Ostean, kafea eta kopa hartzen zuten gizonak. Emakumeek, zeozer hartzekotan, anisa hartzen zuten.

36. Gabonetan familia batzen zen (EAA-003/048)

Gabon egunean beti etorri izan zaio familia etxera. Bisigua eta papardoa prestatzen zuten ordurako. Bakailao errea olioarekin ere asko gustatzen zitzaian, soloan beharrean zeudenean jateko. Ardoa botatik edaten zuten

baserriko beharretan zeudenean. Bakailao erreza zelan prestatzen den azaltzen du.

37. Zartaginekoa txerriekin (EAA-003/049)

Zartaginekoa sarri jaten zuten, txerriekin eta arrautzarekin. Txerriek gatzak kentzeko esnetan sartzen zituzten.

38. Bidea auzolanean egin zuten (EAA-003/050)

Gabonetan kantatzeko ohitura eduki izan dute beti eta baita kartetan egiteko ere. Briskan egiten zuten eurek. Gazteak zirenean argirik eta biderik ere ez zen egon baserrian. Auzoak batuta egin zuten bidea.

39. Amak ezin zuen mantendu eta Gernikara joan zen bizitzera (EAA-006/004)

Eskolan denbora gutxi egin zuen, amak ezin zituelako ume guztiak mantendu eta 7 urterekin, Eako eskola utzi eta Gernikara joan zen lehengusina baten etxera bizitzen.

40. Aita kamiñeroa (EAA-006/005)

Aita kamiñeroa zen eta Eako bide izkina denak berak garbitzen zituen. Lanbide hori azaltzen du. Baserrian lan gutxi egindako gizona izan zen, amak egiten zituen baserriko lan gehienak.

41. Lanean dagoela gizona ezagutu eta etxera bueltatu zen (EAA-006/012)

27 urterekin ezkondu zen. Eibarren morroi lanetan ibili zenean bere koinata izango zena ezagutu zuen. Bere nebak etxea utzi behar zuen eta bikoteari baserrira bizitzen etortzeko gonbitea egin zien.

42. Gizona lantegira eta bera baserrian (EAA-006/013)

Gizona goizeko 6retan joaten zen fabrikara lanera eta bitartean berak baserriko lanak egiten zituen umeak eskolatik heltzen ziren arte.

43. Udatiarrei ortuariak saltzen (EAA-006/017)

Bere gizona zazpi urte Bermeora joaten zen zaldiagaz. Udatiarrei ere ortuariak saltzen zizkieten. Poltsikoan 1.000 pezeta zituela ezkondu zen.

44. "Guardia de asalto"ek aita hil zuten (EAA-006/020)

7 urte zituela, aita lanetik etxerako bidean zetorrela "guardia de asalto"ek kotxea gelditu eta 4 lagunetik 3 fusilatu eta bat hanka gabe utzi zuten.

45. Garia lantzeko prozesua (EAA-006/023)

Garia zerragaz (igitaia) ebakitzen zuten. Gari-azaoa zelan egiten zuten azaltzen dute, gero lotu egiten zen eta gero horiekin mutxurioak egiten zituzten. Ondoren, etartean lehortzen utzi eta izara batekin estali eta garia jotzen zuten Karmen edo Santiago bueltan. Makina baten laguntzarekin garia garbitzen zuten.

46. Zazpi-zortzi anega (EAA-006/024)

Zazpi-zortzi gari anega ateratzen zituzten (anega 1 = 52 kilo). Julian gerra garaian Gipuzkoan egon zen bitartean, garia ehotzeko makina erabiltzen zuten, baina han 200 edo 300 anega lortzen ziren. Makina hori Bergaran egiten zuten.

47. Gosea kentzeko morroi Gipuzkoara (EAA-006/025)

Gerra garaian ogi zatitxo bat ematen zieten hiru lagunuen artean banatzeko. Hori janda gosea izaten zuenez, Gipuzkoara morroi joatea erabaki zuen, trukean arropak eta jatekoa ematen zizkieten. 13 urterekin joan zen Gipuzkoara lanera eta han urte asko igaro ondoren, 21 urterekin Berara bidali zuten soldadutza egin zezan. Lehenago, 11-12 urte zituela Busturiko baserri batean ere egon zen.

48. Eako paper-fabrika altxatzen lagundu zuen (EAA-006/030)

1957an Eako paper-fabrika zabaldu zutenean han hasi zen lanean beste lagun askorekin batera. Bertan, zementuzko hodiak egiten zituzten paper-fabrika itsasora heltzeko.

49. Papera nola egiten zen (EAA-006/031)

Eako paper-lantegian kargadore lanetan ibili zen. Papera egiteko, lehenengo, "aiziadora" sarda-aitzurrarekin lagunduta egurrez kargatu eta tapatu egiten zen. Gero, egurra 200 gradutan egosi eta bertatik "tiña" batera pasatzen zen. Hemen, buelta-bueltaka egoten zen paperaren itxura hartzen zuen arte eta hortik sekadora batzuetatik pasatu eta prest zegoen papera.

50. 12 ogerleko 12 orduren truke (EAA-006/034)

8 edo 12 ordu egoten zen fabrikari eta 12 ogerleko kobratzen zituen. Fabrikara joan orduko, Zornotzako zerra batean lanean ibili zen bi hilabetez eta 4 pezeta ordaintzen zizkieten jornalaren truke.

51. Emakumeen lana paper-fabrikari (EAA-006/035)

Paper-lantegian emakumeak bulegoan bakarrik zeuden.

52. Erleen esaera zaharra (EAA-006/037)

Erleen esaera zahar bat esaten du.

53. Astean hiru bidaiara ekartzeko (EAA-006/038)

Etxean ez zuten urik eta astean hiru aldiz Itxurriñara joan behar izaten ziren behiak lagunduta ura batzera. Urte batzuetara, Kaialdekoek patina egin zuten eta bertan ere etxerako ura batu ahal izan zuten. Animaliek eta pertsonak ez zuten leku berdinetik edaten.

54. Itxurriñara arropa garbitzen; etxean egindako xaboa (EAA-006/039)

Arropa garbitzeko "Itxurriñara" joaten ziren. Zorkiaren laguntzarekin buruan galdara zabal batean eramaten zuten arropa. Bertan hiru harri egoten ziren. Lehenengo arropa zuria garbitzen zuten eta gero kolorezkoak. Hauek garbitzeko etxean egindako txinbo xaboa erabiltzen zuten eta sasi artean eskegitzen zuten arropa sikatzeko.

55. Norberaren garbitasunak astean behin (EAA-006/040)

Garbitasun pertsonalak balde batean ura berotuta egiten zituzten eta normalean, astean behin izaten ziren. Ura txapa gainean berotzen zuten eta elkarri laguntzen zioten garbitzeko.

56. Bikotxak kilo batekin jaio (EAA-006/041)

4 seme-alaba izan zituzten eta euretako bi bikotxak ziren. 8 hilabeterekin jaio ziren eta osasuntsu zeuden arren, oso pisu gutxi izan zuten.

57. Bideak estu-estuak ziren (EAA-007/002)

Gurdibidearen ondoan jendea pasatzeko bide estu-estuak egoten ziren lehen. Orain dela 30 urte gutxi gorabehera, Bernardo Bilbao alkate izan zenean, bideak konpondu eta gaur egun dauden bezala utzi zituzten.

58. Umetan tabatara jolasten zuten (EAA-007/003)

Ume asko bizi ziren lehen Angelutxun eta elkarrekin asko jolasten zuten. Tabena horietako joko bat izaten zen: pilota bat gora botatzen zuten eta jausten zen bitartean tabak aldeztatu behar zituzten; txarto eginez gero, hurrengoaren txanda zen.

59. Umetan kuriketan ibiltzen ziren (EAA-007/007)

Ume sasoiaren, kuriketan jolastu eta asko abesten zuten. Gainera, etxean zeuden arbi buruekin eta haiek egindako goitibeheren antzekoekin Angelutxuko aldapa guztietatik botatzera jolasten zuten ere.

60. "Cara o cruz"era jolasten zuten (EAA-007/008)

Lurrean marra bat egin eta hortik bota behar zuten txanpona goraka. "Cara" goiko aldean geratuz gero txanpona irabazten zuten eta zenbat eta "cara" gehiago orduan eta diru gehiago bakoitzarentzat.

61. Akuiluaren erabilera (EAA-007/010)

Akuilua baserrian egiten zuten eta gero animaliekin probatu.

62. Longako ermandadea (EAA-007/011)

Longako ermandadeko kide izan ziren urte askoan. Ermandadeak baserriarren arteko tratatuak aurrera eramaten eta aseguru bat balitz bezala funtzionatzen zuen. Sozietate bat zen eta bertan "listeruek" eta beste bi gizonek, lekuko bezala, ganadua tasatzen zuten. Urtean behin batzen ziren diru kontuak begiratzeko eta horretaz gain, animaliak hiltzen zirenean ere batzen ziren. Azkenengo biderrez, baserri bateko lau behi eta lau txahal erreta hil zituzten, Julian "kabo" a zela.

63. Ermandadeko bilerak (EAA-007/014)

Longa baserrian biltzen ziren ermandadeko bilerak egiteko eta bakoitzaren kontuak eta arazoak jorratzen ziren bertan. Ganadu kopuruaren arabera gehiago edo gutxiago ordaindu behar izaten zitzaion ermandadeari.

64. Soldadutzan ikasi zuen erdaraz (EAA-007/017)

Erdara ez zuen jakin soldadutzara joan arte. Mutikotan alde egin zuen etxetik eta Maltzagan ardiak zaintzen zegoela, ez zuen ez telebista, ez irratirik ez bestelako aparatu elektronikorik, ardiak soilik zaintzen zituen. Bertan ere dena euskaraz.

65. Jaiegunetan Eako erromerira joaten ziren (EAA-007/020)

Erromeria egunetan, normalean Eara joaten ziren. Hilabete askotan egoten ziren jaiak: Kontzepzio Eguna, Gorpuzti Eguna, San Juan Eguna... jaiegunak izaten ziren.

66. San Juanetan etxe alboan azaoak astinduz abesten zuten (EAA-007/021)

San Juan egunean gari-azaoak astinduz, baserri alboan abestu egiten zuten. Abesti hori abesten du Julianek.

67. Ogi zati bat gordetzen zuten urte batetik bestera (EAA-007/026)

Gabonetan, ogi zati bat urte batetik bestera gordetzen zuten mantel zati batean bilduta eta ez zen alperrik galtzen, lizuntzen.

68. Ogia etxean zelan egiten zen (EAA-007/027)

Etxean ogia zelan egiten zuten azaltzen dute.

69. Okina etxerik etxe (EAA-007/028)

Lekeitioko okina herrietatik ibiltzen zen ogia banatzen eta berari esker, haiek ez zuten inoiz ogi faltarik izan.

70. Bi pezeta medikuaren kontsulta bategatik (EAA-007/030)

Medikua, zaldi gainean joaten zen etxe batetik bestera kontsultak egiten eta bi pezeta ordaindu behar izaten zitzaizkion kontsulta etxean egitegatik.

71. Txanpon motak (EAA-007/031)

Txakur handiak 10 zentimo balio zituen; txakur txikiak, aldiz, 5. "Saltzen, saltzen, txakur txiki baten karameluak..." abesten du Julianek.

72. "14 atso tronpeta jotzen..." (EAA-007/032)

"14 atso tronpeta jotzen..." umetako abestia aipatzen digu.

73. Gomazko eta larruzko abarkak (EAA-007/037)

Gomazko abarkak lanerako izaten ziren eta horiek baino arinago larruzkoak erabiltzen ziren.

74. Emakumeek ez zuten prakarik erabiltzen (EAA-007/040)

Emakumeak zelako arropa eramaten zuten azaltzen dute.

75. Errogatibak euria egin zezan (EAA-007/041)

Aiuko bidera joaten ziren errogatibak egiten. 30-40 lagun inguru joaten ziren euria eskatzen.

76. Mezara joan orduko tabernatik pasatzen ziren gizonak (EAA-007/042)

Eako San Juan elizara joaten ziren goizeko 9etako mezara. Gizonak, fabrikatik irten eta tabernan pare bat kopa hartu eta gero sartzen ziren elizara. Garai haietan, don Cecilio izan zen abadea.

77. Bederatziurrena (EAA-007/044)

Familiako kideren bat hiltzen zenean, 9 aldiz joan behar izaten ziren astean elizara bere omenez. Kutxa mahaiaren gainean uzten zuten jendeak azken agurra eman ziezaion.

78. Ezin dira andabideak zarratu (EAA-007/045)

Andabideen garrantzia azaltzen digute.

79. Astoa patinera jausi zen (EAA-007/047)

Txilibristari astoak alde egin, labean egin eta patinaren gainean geratu zen, barrura jausi barik. Gero auzokideek atera behar izan zuten astoa denen artean.

80. Eta tiro eta tiro... (EAA-007/049)

Abestia

81. Josten eta bordatzen (EAA-011/008)

Teresak Maria Agustina Gonzalorekin ikasi zuen bordatzen, hamalau urte ingururekin. Maria Antoniak asko josi izan du makinaz, enkarguak egiteko. Arropak estreinatzen ziren San Juan egunez eta ordurako eskaerak izaten zituen.

82. San Juanetako sua eta lore sortak (EAA-011/010)

San Juanetan su handia pizten zuten herrian. Dantzan egiten zuten eta kalejira ere izaten zen. Jende asko batzen omen zen. San Juan loreekin sortatxo bat ipintzen zuten atean.

83. Kontzezio eguneko ospakizunak (EAA-011/012)

Abenduaren 8a jaia izaten da Ean, betidanik ezagutu dute. Txistulariak, meza nagusia eta galiziarren banda izaten ziren egitarauan.

84. Gabonetako kantua (EAA-011/021)

Gabonetako kantua.

85. Aita zalgurdiarekin Gernikara joan-etorrian (EAA-011/023)

Aitak zalgurdian eramaten zituen lanera herritarrak Gernikara eta ondoren bueltan ekarri ere bai.

86. Dantza-solte txapelketak (EAA-012/009)

Dantza-solteko lehiaketak egiten ziren jai egun berezietan eta sariak irabazitakoa da Pilar. Saria dirua izaten zen.

87. Erromeriak gramolarekin (EAA-012/012)

Erromeria itzela izaten zen Natxitun. Santik jotzen zien Gramola; mutileri kobratu egiten zien eta etiketatxo bat zintzilikatzen zien bularrean.

88. Gidatzen ikasi zuen lehen emakumea Ean (EAA-012/014)

Gidatzen ikasi zuen lehen emakumea izan zen Ean. Esnea banatzen zuen autoz. Baserrian laguntzen zuen eta josi ere egiten zuen.

89. Josten eta bordatzen ikasten (EAA-012/015)

Liderek ikasi zuen josten. Ibarrangelun makinaz bordatzen ikasi zuen. Orduko ikasketak horiek izaten zirela dio Pilarrek.

90. Txerribodak (EAA-012/017)

Txerriak hiltzen ibiltzen zen aita. Txerriboda egiten zutenean etxean, auzokoak etortzen ziren laguntzera. Nolakoa izaten zen kontaktatu du. Odolosteak nola egiten zituzten kontaktatu du.

91. Odolosteak banatzen etxerik etxe (EAA-012/018)

Etxean egindako odolosteak etxerik etxe banatzen zituzten umetan, trukean diru pixkat ematen zitelako. Nora joaten zen kontaktatu du.

92. Natxituko tabernak (EAA-012/022)

Natxitun hiru taberna zeuden orduan: Taberna Zaharra, Tabernabarri eta Josefinanekoa. Tabernabarri denda eta taberna izan zen. Nolakoa zen kontaktatu du.

93. Ibarrangelu eta Elantxobekoekin, ondo (EAA-012/026)

Ibarrangelu eta Elantxobekoekin hobeto konpondu izan dira Eakoekin baino.

94. Edertasuna zurtasunarekin lotua (EAA-012/027)

Ezkonaurrean Lapatzara joaten ziren bainatzera asteburuetan. Lehengo eta oraingo bizimodua. Edertasuna zurtasunarekin lotzen zenez, tapatuta ibiltzen ziren neskak udan. Itsaoan arropa eta guzti sartzen ziren, ez zeukaten bainujantzirik.

95. Hondartzara garbitzera (EAA-012/028)

Lehen hondartzara joan eta bainatutakoan, garbitu egiten ziren. Orain berriz, etxeratu eta dutxan sartzen direla dio.

96. Lapak batu eta prestatu (EAA-012/030)

Lapak nola hartzen zituzten eta nola prestatzen diren kontatzen du.

97. Lehenengo bainujantzia ikusi zuenekoa (EAA-012/031)

Lehenengo bainujantzia ikusi zuenekoa kontatzen du; Madrilen egonaldi bat egindako neska batek jantzi zuen Lapatzan. Bainujantzia deskribatzen du.

98. Bizimodu aldaketa handia (EAA-012/033)

Bizimoduaren aldaketa handia ezagutu dute.

99. Tabernazaharra nolako zen (EAA-014/002)

Mendipeko Etxebarri zen bere jaiotetxearen izena, baina bere aitita-amamek taberna jarri zutenetik, Tabernazaharra izena hartu zuen etxeak. Etxea eta taberna nolakoak ziren kontatzen du.

100. Tabernaz gain, denda, telefonoa eta posta (EAA-014/004)

Taberna denda ere bazen eta telefonoa eta posta-lekua ere bai. Gaztetatik lan egin zuen Marisolek bertan. Lan asko egin behar izaten zen, jai egunik gabe.

101. Ezti-saltzaileak, lapiko-saltzaileak... (EAA-014/006)

Ezti-saltzaileak, lurrezko lapiko saltzaileak... etortzen ziren Natxitura. Haiek lo ere egiten zuten tabernan, ostatu moduan ere funtzionatzen zuen eta.

102. Jolasorduan, etxeko harrikoa egitera (EAA-014/009)

Eskolako jolasorduan, etxera etortzen zen goizeko harrikoa egitera.

103. Txikiteoa egunero (EAA-014/018)

Txikiteoa goizero egoten zen tabernan, ardo zuriarekin. Iluntzetan ardo beltza edaten zuten. Inguruko herrietatik ere etortzen ziren.

104. Tabernako gramola (EAA-014/019)

Igandeetan gramola jartzen zuten tabernan. Kobratu egiten zieten mutilei. Bere aitak ekartzen zituen diskoak.

105. Santa Ageda egunean, Bermeotik autobusak (EAA-014/022)

Santa Ageda egunez Bermeotik bost autobus beteta etortzen ziren. Egun horretako menua tripotxak eta txerri hanka eta belarriak izaten ziren.

106. Tabernako menua (EAA-014/025)

Tabernan merke kobratzen zutela esaten du. Ama oso sukaldari ona omen zuten. Jateko zer eskaintzen zuten kontatzen du.

107. Ezkontza goizez (EAA-014/026)

Etxetik gramola kendu zutenean, diskoak jartzeko aparatu berriago bat ekarri zuten. Ezkontza batzuk orduan goizean goiz izaten ziren eta gosaria eskaintzen zen.

108. Boga-boga kantua (EAA-014/027)

Ezkontzetan euskarazko eta erdarazko kantuek abesten zituzten. "Boga-boga" beti abesten zen. Marisolek abesten du kantua.

109. Senarra itsasoan hilabete askotarako (EAA-014/031)

Senarra marinela zen eta urtebete edo gehiago egiten zuen etxetik kanpora. Bigarren alaba jaiotakoan, bertako itsasontzietan geratu zen eta sei hilabete egiten zituen kanpoan gehienez.

110. Dendako salgaiak (EAA-014/035)

Inguruko auzoetatik asto gainean etortzen ziren tabernara erosketak egitera, dendako gauzak eramatera. Zer saltzen zuten kontaktzen du.

111. Aitita preso, aita herbestean (EAA-014/037)

Gerra garaian Larrinagan egon zen bere aitita preso eta amak eramaten zizkion jatekoa eta arropa. Aita erbesteratuta egon zen, lehenengo Errusian eta ondoren Belgikan.

112. Lo-kanta (EAA-014/039)

Lo-kanta bat kantatzen du.

113. Senarra itsasoan, umeen heziketa gogorra (EAA-014/040)

Senarra denbora luzez kanpoan izanda, ez zen erraza izan seme-alabak haztea. Erabakiak bakarrik hartu behar izaten zituen.

114. Egun berezietan Gernikara (EAA-014/044)

Gaztetan egun berezietan joaten ziren Gernikara. Behin nobioa izan ezkerro, neskek ez zeukaten parrandara joaterik.

115. Euskaraz besterik ez zekitenak (EAA-016/003)

Anekdota bat kontaktzen du, erdaraz moldatzen ez zen Urtzaerdikoako emakumearena. Hiru lagun ditu gogoan, euskaraz besterik ez zekitenak. Fernandok gazteleraz nola ikasi zuen kontaktzen du.

116. Eakoek baserritarrak baxuagotzat (EAA-016/008)

Bedaroakoek bazuten Earako joera baina Natxitukoek gehiago jotzen zuten lbarrangelura eta Elantxobera. Eakoek baserritarrak baxuagotzat hartzen zituztela esaten du.

117. Lehengo Bedaroa (EAA-016/009)

Lehengo Bedaroa: eskola zegoen, hilerria (orain parkea dagoen lekuan) ere bai. Aldapan txirrista egiten zuten eta lokatzaz betetako arropekin pasatzen zuten astea. Hogeitaka ikasle batzen ziren eskolan.

118. Bedaroako etxe eta eraikuntzak (EAA-016/012)

Bedaroako etxeak eta eraikinak noiz eginak eta nolakoak ziren kontaktzen du.

119. Monagilo lanetan (EAA-016/014)

Zortzi urtetik hamabostera bitartean, monagiloa izan zen. Goizeko zortziretako mezan abadeari laguntzen aritzen zen. Igandetan bi meza eta arratsaldetan arrosarioa errezatzen zuen. Dirutxoia jasotzen zuen. Don Damian apaizaren anekdota bat kontatzen du.

120. Arrantzarako zaletasuna (EAA-016/015)

Igande arratsaldetan itsasoan bainatzera joaten zen eta hantxe ikasi zuen igerian. Arrantzan egitea asko gustatu izan zaio. Zer eta nola harrapatzen zuten kontatzen du.

121. Kanaberak nola egin (EAA-016/016)

Kanabera nola egiten zuten kontatzen du. Sarboak nola harrapatzen zituzten aipatzen du.

122. Lanpernak batzen hildakoak (EAA-016/017)

1956an lanpernak batzen ari ziren hiru mutil galdu ziren. Gorpuak aurkitu zituzten egun batzuk pasatu ostean. Beste mutil bat ere hil zela kontatzen du.

123. Lanpernak batzen (EAA-016/018)

Itsasbeherari "ibixe" esaten diote eta itsasgorari "marie". Itsasbehera handia dagoenean hartzen dira lanpernak. Itsasoak gogor jotzen duen lekuan egoten omen dira lanpernak.

124. Fokoekin arrantzan (EAA-016/019)

Aita arrantzan aritzen zen. Itziartik Ispasterrera arrantzara etorri eta arrain asko hartzen zutela konturatu ziren. Foko handiei esker lortzen zuten eta zizta eginda hartzen zituzten. Fernandok ere gerora hala egiten zuen.

125. Olagarroak nola harrapatu (EAA-016/020)

Olagarrota ez zen asko ibiltzen. Nola harrapatzen diren kontatzen du.

126. Bere pilota egiten zuen jolaserako (EAA-016/021)

Bere pilota egiten zuen jolaserako. Apurtutako hauspoaren larruarekin egiten zituen. Inoiz untxiaren larruarekin ere probatu zuen baina ez zuen lortu. Nola egiten zituen kontatzen du. Palak ere egiten zituzten tarteka, jolaserako. Neskek ere egiten zuten pilotan.

127. Ameriketara joateko ilusioa (EAA-016/024)

Eskola bukatu eta Ameriketarako ilusioa zeukan baina ez zen joan. Basoan hasi zen lanean lehenengo, itsasoan gero eta kamioilari azkenean. Baserrietan morroi ere ibili zen.

128. Baserria amarengandik alabarengana (EAA-019/002)

Urtia baserrikoa zuen ama, eta haren ama eta amama ere bai. Aita Natxituko Arteta baserrikoa zen. Ali ere Urtian jaio zen eta umetan Eara etorri zen bizitzera.

129. Barne ikasle Durangon (EAA-019/004)

Eako eskolan ibili zen, Doña Carmen maistrarekin. Durangon barneko ikasle egon zen eta ez omen ziren ezertarako irtetzen. Espetxearekin konparatzen du. Euskaraz egitea galarazia zuten eskola batean zein bestean.

130. Euskara, baserritarren kontua omen (EAA-019/005)

Bere semea eskolara joandakoan, euskaraz egitearren irakasleak jo egin omen zuen. Beraiek ingurukoekin bakarrik egiten zuten euskaraz. Etxean egin zitelako dakite euskaraz. Euskararen galera Bilbon kokatzen du Aliren senarrak, euskara baserritarren kontua zela zabaltzen hasi zirenean.

131. Euskaraz egitearren lotsarazi (EAA-019/006)

Euskaraz egitearren isilarazi egiten zituzten, lotsagarria zelakoan. Euskararekiko erraztasuna galduz joan ziren Ali eta lagunak. Norbait izateko erdaraz egin behar zen ideia hori zabaldu zen. Mutiko bati gertatutako pasadizo bat kontatzen dute.

132. Aurpegi-ikustea nobioa ezagutzeko (EAA-019/010)

Aurpegi-ikustea: nobioa neskaren etxera joaten zen bazkaltzera, etxekoek ezagutu zezaten.

133. Diru kontuetarako baimena emakumeentzat (EAA-019/013)

Etxeko diru-kontuak Alik eraman izan ditu, horretarako ahalmen baimena eginda baitzuen. Dirua ateratzeko, etxea edo lonja erosteko... beharrezkoa zuten emakumeek.

134. Etxeaundin jaioa (EAA-020/002)

Etxeaundi zeritzon etxean jaio zen hiru senideak. Etxearen izenaren jatorriaz hitz egiten du.

135. Nautika ikasketak Bilbon (EAA-020/004)

Bederatzi urte bete zituenera bitartean egon zen Eako eskolan. Hara eta hona, eskola partikularrak hartzen, ibili zen ondoren. Azkenik, Bilboko Eskolapios ikastetxean batxilergoa egiteko barneko ikasle bezala sartu zen. Nautika eskolak hartu zituen bertan.

136. "Bujero"? zer izango da ba... (EAA-020/005)

Eako eskolako irakasleak dakartza gogora. Oroitzapen gutxi dituen arren, anekdota batzuk gogoan ditu. Eugenio zeritzon lagunaren gaitzizenaren jatorria argitzen du.

137. Ume asko zegoen Ean orduan (EAA-020/006)

Neguan joaten ziren eskolara. Udan, hondartzara joaten zirela kontatzen du. Nahiz eta gaur egun ume gutxi dagoen Ean, garai hartan ugariagoak ziren. Mutilek, pilotan jolasten zuten.

138. Arroka artean arrantzan (EAA-020/007)

Eako portuan bote gutxi zegoen garai hartan. Udaberrian, arroka artean ibiltzen ziren arrantzan mutikoak baina, salmentarako arraina inguruko

herrietatik ekartzen zuten. Jateko eskasia egon den uneetan itsasoa laguntza handia izan dela kontatzen du.

139. Garai bateko kontuak puztu egiten dira orokorrean (EAA-020/008)

Antzinako kondairak neurritz kanpo kontatzen direla iruditzen zaio. Gauzak handitze edo hobetze aldera egiten dugu. Orokorrean, lehenengo gauzak hobetsi egiten dira nahiz horrela ez izan.

140. Eako kostaldeko txoko desberdinen izenak (EAA-020/009)

Toponimia. Inguruko txoko desberdinek betidanik izan dituzte izen horiek: "Lularri", "Saltarri", "Harribaltz"... Amamari gertatutako anekdota kontatzen du: itsaspekoa ("submarinoa" dio hiztunak) zer ote ziren galdetzeraz abadeari joan zitzaionekoa.

141. Kanaberak bizkarrean hartuta arrantzara (EAA-020/010)

Inguruko arrantza-tokietara joaten ziren sarri. Kanaberak bizkarrean hartu eta, gauez ere, karburoarekin, joan ohi ziren nagusiak oinez.

142. Inguruan hondarrik ez duten lanpernak, goxoenak (EAA-020/011)

Inguruan hondarra duten lanpernek ez omen dute gustu ona izaten. Arrazoia ez dakien arren, egia dela iruditzen zaio.

143. Eako Gabonak (EAA-020/013)

Gabon giroko ohitura ezberdinak eta oroitzenak dakartza gogora. 8-9 urte bitarteko mutilak irteten ziren kantuan. Ateratako diruak banatzera Martina "Lapiko"-rengana joaten zirela gogoan du. Asko kantatzen zen Gabonetan.

144. Gabonak: etxe barruko ospakizuna (EAA-020/016)

Jende asko biltzen zen beraien etxean Gabonetan. Etxe barruko ospakizunek indar handia zuten. Gerraostean bizi izan zituzten garai latzen, kanpora begira baino, etxe barruko ospakizunak egitera behartu zituztela iruditzen zaio nahiz eta Ea herri alai izan den beti.

145. Esnedunak etortzen ziren esnea saltzera (EAA-020/019)

Esne asko edaten zuten lehen umeez. Esnedunak esnea saltzera etortzen zirela gogoan dauka. Abesti bat ere ba omen dago horren harira. Esnea erosten zutenei ere nola deitzen zitzaion aipatzen du.

146. "Bolo-bolotan" (EAA-020/023)

Bataioetan, aitabitxiek dirua bota ohi zuten haurrek har zezaten. Bere aita zenari ez zitzaion ohitura hura gustatzen, handikiena zela iruditzen zitzaion.

147. "Nator aittuten emoten zueri..." Perikoren bandoa (EAA-020/027)

Periko Eako aguazila izan zen. Bandoez arduratzen zen eta atabalarekin batetik bestera ibiltzen zela kontatzen du. Perikori gertatutako anekdota barregarriak dakartza gogora.

148. Hildako baten agerraldiarekin apaizari ziria sartu (EAA-020/029)

Galdiztarrak Eako "abade-txikiari" ziria sartzen saiatu ziren eguneko anekdota barregarria kontatzen du.

149. "Sombrero y botas" eskatu Ingalaterran (EAA-020/032)

Jose Santiren aitaita kapitaina zen. Hari eta Eusebio Zabala makinistari Ingalaterran gertatutako istorioa kontatzen du: ingelesik jakin gabe, nola bapo gosaldtu.

150. "Hormas de plisti-plasta" (EAA-020/034)

Bilboko itsasorako irteerako itsasargia Algortan zegoen kokatuta. Hango arduradunak itsasontziaren izena eta zeramaten kargari buruz galdetzen zien patroiei erdaraz. Eako patroei batek zementua zeramala erdaraz esaten nola asmatu zuen kontatzen du.

151. Esaera zaharrak (EAA-020/037)

Amamari entzundako hainbat esaera zahar eta hauen esanahia.

152. Gerraostean Bilboko salesiarretan (EAA-022/003)

11 urte zituen Gerra Zibila hasi zenean. Bi urte egin zituen Bilboko salesiarretan gerraostean. Militarrek hartuta zuten kolegioa. Ez omen zuen askorik ikasi.

153. Arotzeria ikasten hasi eta eraikuntzan bukatu (EAA-022/004)

Bilboko salesiarretatik etorri eta gero, arotzeria ikasten ibili zen Gernikan, bi urtez. Beste urtebete Sigma josteko makinaren lantegian egin zuen. Gero soldadutza egitera Burgosera joan behar izan zen, eta 28 hilabete egin zituen han. Handik etorritakoan, eraikuntzan hasi zen lanean, bere kontura, izan ere, soldadutzan ikasi zuen lanbidea. Arrebak zuen etxe zahar batekin hasi zen lanean. Gero Natxitura etorri zen ezagun baten etxea konpontzera eta bertara ezkondu zen, 1951n.

154. Aita arpanarekin lanean, trenbideetarako egurrak prestatzen (EAA-022/007)

Aitak arpanarekin lan egiten zuen; trenbideetarako egurrak prestatzen zituzten. Arpanagatik diru asko ordaindu omen zuen aitak, eta jendeak kiebra joko zuela esaten zuen. Baina kontratista moduan ibiltzen zen, eta beharginak ere bazituen. Hiru lagun behar ziren arpana erabiltzeko.

155. Gerraostean errazionamendua eta ogi beltza (EAA-022/008)

Gerraostean ogi beltza jaten zuten, zahiarekin egindakoa. Garbantzua, arroza, olio... errazionamenduan zeuden, eta gutxi ematen zieten.

156. Gerra aurretik mitinak herrietan (EAA-022/009)

Gerra aurretik mitinak egoten ziren herrietan. Alderdien arteko pikea zegoen;goizean batzuk eta arratsaldean beste batzuk egoten ziren mitina ematen. Auzoko batzuk guardia zibilak ziren eta entzutea du Madrilen zaldi gainean ibiltzen zirela iraultzetan.

157. Bilbo hartu zutenekoa; Sollubeko frontea (EAA-022/010)

Gerra garaian baserriak errekiatu egiten zituzten gorriek, gosea zegoen eta. Markinan geratuta egon zen frontea, 7 hilabetez. Bilbo inguruan nazionalak "cintur&ocute;n de hierro" delakoa egin zuten, babesteko. Baina ez zuen balio izan, kostatik, aldamenetik sartu zirelako. Sollubeko frontea izugarria izan zen. Gorriek nazionalak aurrean hartu zituzten eta hegazkinen laguntzaz nazionalista ugari hil.

158. Ereñon atxiloketarik ez; Arteagan bi fusilatu (EAA-022/011)

Gerra garaian ez zen egon atxiloketarik eta liskarrik Ereñon. Baina Arteagan bai, han bi pertsona fusilatu ei zituzten.

159. Zenbait etxetatik mendi aldera ihesi (EAA-022/013)

Gerra garaian beldurra egon zen. Zenbait etxetatik jendeak ihes egin zuen mendi aldera. Kasu batzuetan okerragoa izan zen ihes egitea, gero harrapatu eta atxilotu egiten zituztelako.

160. Gerraostean baserrian goserik ez, baina kalean txarto (EAA-022/015)

Errazionamendua 1939tik 1951ra arte egon zen. Ez zuten goserik pasa, baserrian beti izaten zutelako zerbait jateko. Ogi zuria eta olio falta. Kanean egoera okerragoa izan zen. Gogoan du behin Arteagako bi gizonezko etorri zirela etxera eta aurreko egunetako talo gogorra nola jan zuten, gustura asko.

161. Taloa eta esnea janda, osasuntsu (EAA-022/016)

Taloea nola egiten den. Esnetara botata jaten zuten, goizean eta gauean. Osasunerako ona dela dio. Eurak, 5 neba-arreba, hori janda ondo bizi izan dira, eta urte askoan, gainera. Orain jateko berezi moduan jaten da. Berak ez ei du jaten, lehen asko jandakoa delako. Hoztuz gero, gogortu egiten da, baina beroan jateko bikaina da taloea.

162. Errazionamenduko ogia bi aldiz jasotzearen, isuna (EAA-022/017)

Ezkondu zenean (1951n), ogia errazionamenduan zegoen oraindik. Udaletxera joaten ziren elikagaien bila. Ezkondu zenean Eako udaletxean eman zuen izena, baina Ereñon artean "baja" eman gabe. Amak bere errazionamenduko ogia jaso zuen Ereñon eta berak Ean. Handik hilabetera konturatu egin ei ziren eta hamar ogerlekoko isuna ordaindu behar izan zuen.

163. Bilboko salesiarretara ikastera joan, eta soroan beharrean (EAA-022/020)

Baserri handia zuten eta labore asko hartzen zuten. Bilboko salesiarrek handik eramaten zituzten elikagai batzuk. Mutilak edukitzen zituztela ikasten entzun zuen aitak, eta hara eraman zuen. Ikasketak eta ofizioa ikasten ei ziren, tailerrak ere bazituzten eta. Baina gerra garaian militarrek zuten hartuta zatirik handiena eta zati txiki bat bakarrik zegoen ikasketetarako. Gose garaia zen eta salesiarrek soroak eta ganadua jarri zituzten Deustun zituzten sailetan. Hara ikastera joandako baserritarrak ipintzen zituzten lanean.

164. Gernikara bizikletan, arotzeria ikastera (EAA-022/022)

Gernikan ikasi zuen arotzeria, tailer baten. Hiru-lau tailer zeuden orduan Gernikan. Lehen altzariak ez ziren kanpotik ekartzen, bertan egiten ziren. Lehenengo urtean ez ei zuen zentimorik ere irabazi. Bizikletaz joaten zen Ereñotik Gernikara.

165. Sigman lanean, ezin dirurik aurreztu (EAA-022/023)

Soldadutzarako dirua behar eta Eibarrera joan zen lanera, Sigma josteko makinaren lantegira. Baina ez zuten asko irabazten, han geratu behar izaten zirelako ostatuan. Destajuan lanean, orduko ogerlekoa irabazten zuten, baina gero ostatuko gastuak ordaindu behar. Azkenengo hilabeteetan eraikuntzalanetan ibili zen Eibarren eta orduantxe aurreztu zuen diru apur bat.

166. Sigman josteko makinentzat armairuak egiten (EAA-022/024)

Sigma lantegian arotzeria lanak egiten zituen. Josteko makinentzat armairuak egiten zituen, bai eskuzko makinentzat eta baita hankarekin eraginda ibiltzen zirenentzat ere. Armairuari "goma-laka" ematen zitzaion. Behar "fina" ei zen, eta ordu asko sartu behar. Intxaurra erabiltzen zen eta giharduna izanez gero, hobe.

167. Krisi garaian jende asko kanpora lan bila (EAA-022/028)

Krisi handia egon zen garai batean, eta ez zegoen lanik. Bere anaia bat Ameriketara joan zen lan bila eta bestea Australiara. Itsasoan zebiltzan marinelek ez zuten krisirik izan.

168. Altzariak egiten lanik ez zegoenean, beste zerbait egin behar (EAA-022/030)

Bertako jendeak erosten zizkion altzariak. Lanik ez zegoenean, basora pinuak botatzera edo beste zerbait egin behar. Gero egoera hobetu zen, paperlantegia jarri zutenean.

169. Gerraostean ahal zen moduan bizi ziren (EAA-022/032)

Ean jendea ahal zuen moduan bizi zen gerraostean. Ganadua jarri zuen jende askok. Ura iturritik ekartzen zuten. 43-46 urte izango direla Natxituan ura jarri zutenetik dio. Arropak etxean xaboitu eta erre kara eramaten ziren urberritzera. Bestela garbitokia ere bazegoen. Norbera garbitzeko, berriz, ura ekarri eta ahal zen moduan.

170. Lehengo janzkera; aberatsagoen eta pobreagoen arteko aldea (EAA-022/033)

Eurak ondo janzten zirela dio; jostundegian egindako traje onak izaten zituzten, baina bat edo bi. Ez zegoen oraingo aukerarik. Udan praka "milrayas"-ak. Baserri txikiagoetakoek ez zuten izaten halakorik, besteei txiki egindako arropa jantzi behar. Miserian bizi ziren.

171. Altzariak egiteko egur-klaseak (EAA-022/036)

Altzarietarako erabiltzen diren egur-klaseak: haritz amerikarra, lizarra, akaziak... Egurrik onenak intxaurreta eta gaztaina izaten ziren, baina besteak ere ez ziren txarrak. Egur "nobleak".

172. Egur batzuei errazago egiten zaie kardamua (EAA-022/037)

Egur batzuei azkarrago egiten zaie kokoa. Haltza egur ona da, baina zaindu ezean kardamua egiten zaio. Egurrari leku ilunean dagoenean edo zikina dagoenean errazago egiten zaio kardamua.

173. Eara bizitzera (EAA-024/003)

Aita Ameriketatik etorritakoan, Firestonen bizi izan ziren eta handik Eara etorri ziren, aita sabeleko minez ibiltzen zelako. Etxe hura botata dago. Non zegoen kontatzen du. Zazpi senide ziren.

174. Aita eta aitita Ameriketara (EAA-024/008)

Aitak Firestonen lan egin zuen eta hango urak izorratu zuela esaten du. Amak ondo zaintzen omen zuen. Aita Urtiakoa zen eta Amerikan denbora asko egindakoa. Aitaren aita hargina zen eta Amerikan elizak-eta egindakoa zen. Elkarrizketa egiten ari diren etxea ere aititak egina da.

175. Ameriketara lanera (EAA-024/011)

Aita eta ama ezkondu zirenean, Firestonera joan ziren. Aitita lanik gabe zegoenez, Amerikara joan behar izan zen. Orain ere berdintsu dela kontatzen du.

176. Neskame Bilbon, egonaldi gogorra (EAA-024/018)

Neskame egon zenean, lurrari disdira ematen aritzen zen. Elgorriaz gaixotu zen eta medikuak xiringarekin sendagaia eman zion. Gaizki pasatu zuen, ez zuten aintzat hartzen eta.

177. Taloak eta morokila (EAA-024/022)

Talo asko jaten zuten; talo zopak eta morokila ere bai. Ogia ere beti jan izan dute, amak egindakoa.

178. Gari-jotea auzolanean (EAA-024/024)

Gari-jotea izaten zenean, jatekoa eskaintzen zitzaaien laguntzera etortzen zirenei. Baserri txikiak hiruk batera egiten zuten, adibidez. Zer jaten zuten kontaktzen du. Pasadizo bat kontaktzen du. Lurrean jaten zuten, "txibua" jarrita.

179. Ura ekarri egin behar (EAA-024/025)

Ura hartzeko potzua zeukaten. Hura lehortzen zenean, udan, errekatik ekarri egin behar izaten zuten barriketan. Argindarra beti eduki izan dute.

180. Gerraostean eskean etortzen zitzaizkien (EAA-024/028)

Gerraostean ez zuten goserik pasatu baina ezer ez zutenak etortzen ziren eskean. Kaleko jendeak, Ean, gosea pasatu zutenak ezagutzen ditu.

181. Euskararen debekuari aurre (EAA-024/029)

Euskararik ezin zen erabili. Eskolan ume batzuek aurre egiten zioten debekuari.

182. Abadeari beldurra (EAA-024/030)

Udaletxe azpian militarren koartela egon zen urte askoan. Militarrei baino abadeei beldur handiagoa izaten zien Garbiñek.

183. Aste Santuko prozesioak (EAA-024/033)

Elizak botere handia izaten zuen. Aste Santuan prozesioak egiten ziren Ean eta Natxitun. Nolakoak izaten ziren kontaktzen du.

184. Gari-jotea nola egiten zen (EAA-024/034)

Gari-jotea nola egiten zuten kontaktzen du.

185. Hiru irin desberdin (EAA-024/036)

Gari-joteko kontuak azaltzen jarraitzen du. Hiru irin desberdin egiten zituzten, Ibarrangeluko errota. Gizaburuagara ere joandakoa da, estraperlo kontuengatik. Pasadizo bat kontaktzen du.

186. Irinarekin beldurrez (EAA-024/037)

Ibarrangeluko errota non zegoen kontaktzen du. Irina astoan hartuta beldurrez etortzen ziren.

187. Abarkak nola egiten ziren (EAA-026/002)

Abarkak nola egiten ziren. Zezina egiteko txahala hiltzen zen neguaren hasieran. Haren larrua sabaian jartzen zen, tira-tira eginda, iltzeekin ertzetan josita, sikatzeko. Larrua sikatuta zegoenean, ohol baten gainean jarri eta markatu egiten zen, ohol haren forman ebakitzeko. Larru hura uretan ipintzen zen egun batzuetan, biguntzeko. Bigundutakoan, puntak biribildu eta gero abarka-ziriarekin zuloak egin.

188. Abarka-ziria zertarako erabiltzen zen (EAA-026/003)

Abarka-ziria nolakoa zen eta nola egiten zitzaizkien zuloak abarkei. Gero larrua zati fin-finak hartu eta zulo guztietatik pasatu eta estutu. Abarka-kordela sartzeko zulo zabaltxoagoak egiten zitzaizkion bi alderdietan.

189. Larruzko abarkak biguntzeko uretan sartu (EAA-026/004)

Larruzko abarkak gogortuz gero, uretan sartzen ziren berriz biguntzeko. Bigun zeuden artean jantziz gero, erabiliaz, janzten zituenaren hankaren forma hartzen zuten.

190. Aitak abarkak dotoretzeko egiten zituenak (EAA-026/005)

Ama Lekeitiora joaten zen plazara larruzko abarkak jantzita. Abarkak dotoreagoak egiteko, zapaten larru zati beltzak sartzen zizkieten abarkei. Eta oraindik dotoreago egiteko, puntan begi beltzak balira legez, bi zulo egiten zitzaizkien, muturraren alde banatan, eta larru beltza handik pasatu. Zapata konpontzailearengana joaten ziren larru zati beltzen bila. Batzuetan aitak esnetan sartzen zituen abarkak biguntzeko (uretan sartu beharrean), eta askoz zuriagoak geratzen ziren, dotoreagoak.

191. Abarkagintzaren inguruko azalpenak (EAA-026/006)

Abarkak egiteko, ohol bat erabiltzen zen, larrua forma horretan ebakitzeko. Abarka handiagoak nahi zirenean kanporagotik ebakitzen zen, eta txikiagoak nahi zirenean barruragotik. Abarkak esnetan beratzen ziren, kolorea zuria nahi izanez gero. Bestela, abarkak gogortzen zirenean, uretan edukitzen ziren bigundu arte. Gero kordela ipini eta erabiltzeko prest.

192. Abarka-ziriaren inguruko azalpenak (EAA-026/007)

Abarka-ziria erabiltzen zen bai abarkei zuloak egiteko eta baita josteko ere. Orratz lodi baten antzekoa zen.

193. Galtzerdiak beharrean, "abarka-mantak" (EAA-026/008)

Galtzerdiak beharrean, "abarka-mantak" erabiltzen zituen aitak batzuetan. Nolakoak izaten ziren. Aitak "abarka-mantak" nola jartzen zituen azaltzen du.

194. Ume txikientzat abarka bigun-bigunak (EAA-026/010)

Ume txikientzat, oinez ikasteko, abarka bigun-bigunak egoten ei ziren denda guztietan. Kalerako zapatak erosten zitzaizkien.

195. Abarkak apurtutakoan, "abarka-zopittie" (EAA-026/011)

Abarkak konpondu ere egiten ziren. Zuloren bat egiten bazitzaien, beste abarka batzuk egiterakoan sobratutako larru zatia uretan bigundu eta komeni zen eran ipintzen zitzaizkien, zuloa estaltzeko. "Abarka-zopittie" esaten zioten.

196. Ardi-larrua uztarria estaltzeko (EAA-026/015)

Ganadua uztartuta zegoenean, uztarriaren gainean ardi-larrua jartzen zen, bere lana eta guzti. Apaingarri gisa eta erak ez bustitzeko izaten zen. Gaur

egun sokekin ere lotzen dira uztarriak, baina lehen beti erak erabiltzen ziren. Zapak borla gorriekin jartzen zitzaizkien idiei, dotoretzeko.

197. Zapak, ganadua babesteko (EAA-026/016)

Erak lotzerakoan idiek edo behiek minik hartu ez zezaten jartzen ziren zapak. Gero borlak jartzen zitzaizkien, apaingarri gisa.

198. Inguruetan idi gutxi (EAA-026/018)

Inguruetan ez zegoen idi asko. Probetarako egoten ziren idiak. "Karretero" lanetan basotik zuhaitz handiak ateratzen ibiltzen zirenek ere izaten zituzten idiak. Bestela, baserrietan gutxi.

199. Uztargilea etxerik etxe (EAA-026/020)

Berriatua inguruko gizon bat ibiltzen zen etxerik etxe uztarriak egiten. "Buztarri" deitzen zioten. Gerezia ei zen ona uztarriak egiteko. Ebaki eta gero egurra uretan eduki behar izaten ei zen. Uztargileak etxera etorri eta neurria hartzen zion uztartutako ganaduari.

200. Gurdiaren inguruko azalpenak (EAA-026/022)

Gurdiak nolakoak izaten ziren. Gurdiaren zatiak. Gurrpil handi bi, eta atzera tronko biribil luzea; gurrpilen artean gurdi-ardatza.

201. Labeak etxean kanpoaldean (EAA-026/024)

Gerra garaian auzokoen artean labe bakarra izaten zuten. Gerora hasi ziren bakoitza bere labea egiten. Labea beti etxe kanpoaldean egoten zen.

202. Bedaroako ganadu ermandadea (EAA-026/027)

Ganaduen ermandadea zegoen Bedaroan. Euren etxean ganaduren bat hil ere egin zen, alpapa gehiegi jan zuelako edo. Orduan, ermandadekoei abisatzen zitzairen ganadua ikustera etortzeko. Ganadua aprobetxatzeko moduan egonez gero, harakinak zatitu egiten zuen eta ermandadeko kideei banatzen zitzairen okela.

203. Txerri-hiltzea; odolosteak auzora (EAA-026/030)

Txerri-hiltzea nola izaten zen. Mahai gainean jartzen zen txerria hiru-lau lagun artean eta harakinak kakoa sartzen zion paparretik. Odol-hustutakoan, ileak erre egiten zitzaizkion. Gero trapu busti batekin garbitu egiten zen, eta tripak kendu. Hoztutakoan, zatitu. Gero, odolosteak auzokoei banatzen zitzaizkien. Berak ez du ezagutu odolosteak abadeari eroateko ohitura.

204. Gabon-gaueko ogiaren zati bat urtebetez gordetzeko ohitura (EAA-026/031)

Gabon-gauerako ogia oso-osorik gordetzen zen. Ogia ebakitzeko, ogiari kentzen zitzaion lehenengo zatitxoa urtebetez gordetzen zen, eta hurrengo gabon-gauean txakurrei eta katuei ematen zitzairen, esnetan bustita. Batzuek txakurrak ez amorratzeko izaten zela diote, baina berak ez du halakorik entzun izan.

205. Jaunartzea egin zuen lutuan zeuden bitartean (EAA-030/002)

Ea-ko Angelutxu auzoko "Atzeko" izeneko baserrikoa da. Bi anai zahar ditu. Amona beraiekin bizi zen eta jaunartzea egin baino pixka bat lehenago zendun zenez, ospakizuna doluan egin zen.

206. Amak esnea partitzen zuen (EAA-030/003)

Baserrian behiak, oiloak, astoak... zituzten. Amak esnea Ean saltzen zuen etxez-etxe. Geroago, Ea-ra jaitsi beharrean bidera atera eta bertan saltzen zuen kaikuarekin. Esnedun bakoitzak bere bezeroak zituen.

207. Baserria bai, baina ekoizpenik ez (EAA-030/004)

Baserritik bizi ziren haur eta gaztetan. Gero hiru anai-arrebek kanpoan lan egin dute, lantegietan. Baserriko ekoizpena nahiko berandu arte mantendu zuten baina orain baserria eta lurak bakarrik dituzte, aktibitate ekonomikorik gabe.

208. "Txorizo pamplona" nahiago etxeko txorizoa baino (EAA-030/006)

Gutiziarik ez zuten izaten baserrian baina jateko falta ere ez. Janari bereziak izaten ziren batzuetan: pastelak, errusiar entsalada, bisigua... Txerria zutenez, txerriki onak egiten zituzten. Hala ere, hurrek nahiago izaten zuten kanpoko "txorizo pamplona" jan.

209. Goserik ez dute inoiz pasa (EAA-030/008)

Jatekoaren faltarik ez dute inoiz izan baina gutziaren bat jateko gogoia bai. Hurrei gaseosa ematen zieten igandetan.

210. Patinetik ateratzen zen ura (EAA-030/009)

Baserrian beti ezagutu du argindarra baina ur-korronterik ez. "Patinetik" iturburuko ura ateratzen zuten kozinatzeke, norbera garbitzeko, platerak garbitzeko... Patina baserri batzuen artean partekatzen zen. Edateko ura iturri batetik hartzen zuten eta ganaduak putzutik edaten zuen. Udan, patinetik ura ateratzeko ordu zehatzak zeuden.

211. Arropa errekan eta eskuzko garbigailuarekin garbitzen (EAA-030/010)

Lehenengo garbigailua eskuzkoa izan zen. Errekan eragin behar ziren arropak. Izarak garbitzea lan handia zen. Zortia ipintzen zuten emakumeek buruan eta haren gainean arropaz betetako saskia.

212. Aste osorako ogia egiten zuten (EAA-030/014)

Larunbatetan aste osorako ogia egiten zuten baserrian. Ogia nola egiten zen kontatzen du. Hurrek nahiago izaten zuten okindegiko eguneko ogia, etxekoa baino. Garia ereiteari utzi ziotenean lan bat gutxiago izan zuten etxean ere.

213. Garai bateko janak, gaur egun gutziak (EAA-030/015)

Gaur egun baserriko ogia, taloak... azoketan eta egun berezietan jaten ziren. Garai batean eguneroko janak ziren. Morokila ez zen jaten bere etxean.

214. Natxituako eskolan haur asko (EAA-030/017)

Natxituko eskolan haur asko zeudenez, neskek goizetan izaten zituzten klaseak eta mutilek arratsalde. Gero eskola berriak egin zituzten.

215. Angelutxu auzokoak beti Natxitura (EAA-030/019)

Angelutxu auzokoak Natxituara joaten ziren eskolara eta elizara. Eakoekin harremanik ez zuten.

216. Eskola frankismo garaian (EAA-030/021)

Eskolan gaztelaniaz ikasten zuten baina doktrina euskaraz. "Cara al sol" abesten zuten egunero eta noizbehinka ikuskaritzakoak agertzen ziren eskolan.

217. Izarak brodatzen eskolan (EAA-030/023)

Eskolan josten erakusten zieten neskei eta izarak brodatzen zituzten. Entziklopedia bat erabiltzen zuten liburu bezala.

218. Eskolako irteerak eta txangoak (EAA-030/024)

Ikasturte bukaeran irteera bat egiten zuten, normalean Igeldora. Autobusean joaten ziren. Plentziara, Gornizera, Sondikara... ere joaten ziren. Derioko idiak ikustera joan ziren ere.

219. Jostuna izateko ofizioa hasi zuen (EAA-030/025)

Hamabost urterekin ikasketak bukatu zituen eta josten ikasten hasi zen Ean. Emakume batekin ikasi zuen praktikak josten. Bertan zegoela Ispasterko lantegi batean lan egiteko eskaintza jaso zuen eta bertara joan zen.

220. Autobusean erromeria guztietara (EAA-030/027)

Erromeria baten ezagutu zuen Gizaburuagako mutil-laguna. Erromeria askotara joaten ziren eta autobusean mugitzen ziren. Lagunen baten kotxean edo taxian bueltatzen ziren etxera

221. Gernikara dantzara edo zinemara (EAA-030/028)

Gernikara joaten ziren ia igandero "sala de fiestas" edo dantzalekura. Hasieran Lekeitioko Jai Club-era joaten ziren baina gero Gernikara autobusean. Gernikan zinera, dantzalekura, kafetegietara... joaten ziren.

222. Franco hil zen egunean, jai (EAA-030/032)

Gernikan atera zuen gidabaimena. Franco hil zen egunean klase bat hartzera joan zen baina jai eguna zenez, etxera bueltatu zen. Franco hil ostean aldaketak egon ziren baina ez zuten horrenbeste sumatu.

223. Etxetik kanpo lan egitearen onurak (EAA-030/034)

1979an ezkondu zen Gizaburuagara. Lantegian lan egiteari utzi zion eta gutxira itxi zuten. Lantegian lan egitea oso positiboa izan zen berarentzat, etxetik atera zelako, gidabaimena atera zuelako, dirua irabazi...

224. Nekazalturismoa zabaldu zuen baserrian (EAA-030/036)

Nekazalturismo bat zabaldu zuen baserrian. Hasieran ez zekien zer zen ere ez. Prozesua nolakoa izan zen azaltzen du.

225. Nekazalturismoan urtero errepikatzen duten bezeroak (EAA-030/038)

Zaragozako bikote bat izan zuten nekazalturismoan, zabaldu eta gutxira. Geroztik urtero pasatzen dituzte 15-18 egun Maria Angelesen nekazalturismoan, gaur egun seme-alabekin eta haien bikoteekin. Ia 35 urte dira urtero joaten direla eta familiazat hartzen dituzte.

226. Herriko adin nagusiko guztiak dira alkategaiak (EAA-030/041)

1991tik 2001ra izan da Gizaburuagako alkate. Gizaburuagan, 18 urtetik gorako biztanle guztiak dira alkategaiak, eta hauteskundeak baino lehen aurre-bozkeketa bat egiten da. Prozesua nolakoa den eta bera nola atera zen kontatzen du.

227. Hogei urtez Gizaburuaga alkate (EAA-030/042)

Hogei urtez Gizaburuaga alkate. Hasieran ez zuen nahi, ez zuelako bere burua gai ikusten. Ez dago alderdi politikorik eta 18 urtetik goragoko edozein izan daiteke alkategai. Amoro-ton ere horrela aukeratzen da alkatea. 2001ean alkatetza utzi nahi zuen eta hauteskunde aurreko bozketan, berari ez bozkatzeko eskatu zuen.

228. Biztanleria mantentzeko etxebizitzak sortu ziren (EAA-030/043)

Gizaburuagako alkate 20 urtez izan eta gero, herrian aldaketa asko egon ziren. Udaletxe berria egin zen. Gazteak herririk ez joateko etxebizitza berriak eraiki ziren. Abade etxean adinekoentzat eguneko zentroa sortu zuten.

229. Herrian egindako ekarpenagatik pozik (EAA-030/044)

Alkate izandako garaiari buruzko oroitzapen positiboak ditu. Pozik dago herriari egindako ekarpenagatik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com